

# CORPUS CHRISTI

**“VOLUNTARIOS CON CORAZÓN”**  
***29 de mayo del 2016***

---

***MONICION de entrada:***

Culminamos las grandes fiestas de la liturgia cristiana con la celebración del Corpus Christi. Bendición y compromiso son las invitaciones que nos hace la celebración eucarística.

Bendecimos a Dios creador, que ha hecho todo para nuestro bien. Nos comprometemos cuando celebramos y vivimos la eucaristía, ya que nos acercamos a Jesús, a su persona y a su proyecto.

Jesús siempre tiene la iniciativa. Es el Maestro. Los discípulos, todos nosotros, debemos asumir nuestro papel. Y cuando le dejamos actuar, los bienes se multiplican.

Caritas que celebra hoy su gran día de fiesta, la fiesta del amor compasivo y misericordioso de Dios, este año nos recuerda, sobre todo, la importancia de trabajo de los voluntarios de las parroquias y servicios, sin olvidar a los trabajadores profesionales que, todos juntos, están llamados a humanizar la vida desde una atención cordial que proviene del encuentro personal con Dios en Cristo.

## **PERDON**

---

Al celebrar la Eucaristía, hagamos un momento de silencio y presentemos ante Dios nuestra pobreza y esperanza.

- Tú, que eres abundante pan de vida. *Señor ten piedad.*
- Tú, que eres camino de gozo y alegría. *Cristo ten piedad.*
- Tú, que eres fuente de unidad y de paz. *Señor ten piedad*

El Dios del amor, que nos alimenta con el pan de su Palabra y su eucaristía, tenga misericordia de nosotros, perdone nuestros pecados y nos lleve a la vida eterna. Amén

## **LECTURAS**

---

### **Monición**

Un tema común a las lecturas de hoy es la Alianza. La Alianza se refiere al pan ha sido siempre objeto de bendición, algo sagrado. Es “fruto de la tierra y del trabajo del hombre”, pero es, sobre todo, signo de generosidad de Dios. Todo pan tiene algo de maná; es fruto de la tierra, pero baja del cielo. Jesús bendice los panes y los peces, dando gracias a Dios por este alimento, lo parte y, por la fuerza de su amor, se multiplica en sus manos, para que nadie pase hambre.

- **Génesis 14, 18-20:** en medio de mucho misterio, una ofrenda de pan y de vino, que será con el paso de los siglos la gran ofrenda utilizada por Jesús para quedarse sacramentalmente con nosotros.
- **1 Corintios 11, 23-26:** leemos el relato más antiguo de la cena eucarística. Pablo nos refiere una tradición, recibida y transmitida, sobre la celebración de la fracción pan, en las primitivas comunidades cristianas.
- **Lucas 9, 11b-17:** la multiplicación de los panes está en medio de dos misiones a realizar: la eucaristía no es un hecho en sí, sino que está orientada como fundamento-alimento de la misión evangelizadora de la iglesia.

## SUGERENCIAS PARA LA HOMILIA

---

Los Santos Padres proclamaron unánimemente la exigencia radical de la solidaridad con los pobres por parte de quienes celebramos el misterio de la entrega del Señor. No hay eucaristía sin caridad.

San Cipriano increpaba a una comunidad cristiana de su diócesis: "Tú eres afortunada y rica. ¿Te imaginas celebrando la cena del Señor sin tener en cuenta tu aportación solidaria? Tú suprimes la parte del sacrificio que es del pobre". Tradicionalmente, una tercera parte de la colecta se destinaba a la ayuda de los pobres de la comunidad. Dice, asimismo, tajantemente: "Cuando los ricos no llevan a la eucaristía lo que los pobres necesitan, no celebran el sacrificio del Señor".

San Juan Crisóstomo, al llegar a un pueblo de su diócesis, se enteró de que había muerto un mendigo por descuido de los vecinos. Entonces advirtió con dureza: "Me niego a celebrar la eucaristía hasta que no hagáis penitencia por tan gran pecado, porque no sois dignos de participar en la cena del Señor".

El cardenal Lercano tenía en el frontis del altar de su capilla un interrogante interpelador: "Si compartimos el pan del cielo, ¿cómo no vamos a compartir el pan de la tierra?".

La fiesta del Corpus puede ser una ocasión adecuada para que, en cada comunidad parroquial, pastores y fieles nos preguntemos qué estamos haciendo para que la eucaristía sea, como dice el Concilio, "fuente y culmen de toda la vida de la comunidad cristiana".

Por otra parte, este año, queremos animar a todos los colaboradores de Caritas y especialmente al voluntariado de nuestras comunidades de fe a reflexionar sobre el trabajo específico de la actividad caritativa de la Iglesia que el papa Benedicto XVI en la encíclica *Deus caritas est* (2005, n. 31) lo concretaba: "...quienes prestan ayuda a los que sufren, es preciso que sean competentes profesionalmente, tienen que formarse de manera que sepan hacer lo más apropiado y lo más

adecuado, asumiendo el compromiso de que continúen después las atenciones necesarias. La competencia profesional es lo primero pero por sí mismo no basta... Se trata de seres humanos que necesitan siempre algo más que una atención sólo técnicamente correcta. Necesitan humanidad. Necesitan atención cordial. Cuando trabajan en las instituciones caritativas de la iglesia deben distinguirse por no limitarse a realizar con destreza lo más conveniente en cada momento, sino por su dedicación al otro con una atención que sale del corazón, para que el otro experimente su riqueza de humanidad. Por eso, además de la preparación profesional, necesitan también y sobre todo una formación del corazón; se les ha de guiar hacia ese encuentro con Dios en Cristo, que suscite en ellos (los agentes), el amor y abra su espíritu al otro, de modo que, el amor al prójimo ya no sea un mandamiento por así decir impuesto desde fuera, sino una consecuencia que se desprende de su fe, la cual actúa por la caridad".

### ***ORACION DE LOS FIELES***

---

En este día en que Cristo nos ofreció signos palpables de su amor eterno, oremos confiadamente al Padre de la misericordia.

1. Por la Iglesia para que no caigamos en la rutina y sintamos la urgencia de compartir la vida y de ayudarnos unos a otros y ser compasivos. *Roguemos al Señor.*
2. Por tantos trabajadores en paro, por sus familias y cuantos sufren las consecuencias de la crisis económica, para que este día del amor fraternal les sostenga en la esperanza de un futuro mejor. *Roguemos al Señor.*
3. Por quienes trabajan en Caritas y su voluntariado, para que en estos tiempos difíciles no dejen de recibir nuestro apoyo y colaboración. *Roguemos al Señor.*

4. Por nuestra comunidad y por quienes en el mundo entero celebramos la eucaristía, que sea un verdadero encuentro con Jesús y entre nosotros. *Roguemos al Señor.*

Escúchanos Padre y ayúdanos a vivir como hijos tuyos y hermanos de todas las personas. Por Jesucristo nuestro Señor. Amén.

### ***COLECTA***

---

La colecta de este día está destinada a Cáritas de la Parroquia, para que podamos disponer de los fondos necesarios para ayudar a las personas y familias más necesitadas en nuestro entorno.

### ***LA PAZ***

---

El mayor pecado de la tierra es la división y el enfrentamiento entre los seres humanos. La mayor desgracia es el olvido y la indiferencia ante el drama de media humanidad que malvive en la miseria. No hay paz si no hay justicia y respeto a los derechos humanos de todos. Démonos la paz en la verdad de una vida nueva.

# CORPUS EGUNA

**“BAT EGIN Gipuzkoako BIHOTZAREKIN”**

**2016eko maiatzaren 29a**

## **SARRERA:**

Corpus Egunarekin, liturgiaren jai handiak amaituko ditugu. Bedeinkapena eta konpromisoa dira eukaristi ospakizunak proposatzen dizkigun ideiak.

Jainko sortzailea bedeinkatzen dugu, egin duen guztia gure onerako egin baitu. Eta konpromisoa hartzen dugu eukaristia ospatu eta bizi dugun guztitan; Jesusengana hurbiltzen garela, Jesus pertsonarengana hurbildu zen bezala.

Jesusek ekimenez jokatzen du beti. Bera da Maisua. Gu guztiok ere, geure egitekoa onartu behar dugu. Eta Jesusi jarduten uzten diogunean, ondasunak ugaldu egiten dira.

Caritasek bere jaieguna handia ospatzen du gaur. Jainkoaren maitasun errukior eta gupidakorraren jaia, hain zuzen. Aurten, batez ere, parrokietako eta zerbitzuetako boluntarioen lana zeinen garrantzitsua den gogorarazten digu; langile profesionalak ahaztu gabe, jakina, guztien artean bizitza hobeagotzen ari baitira, Kristorengan dagoen Jainkoarekin izandako aurrez aurreko elkartzetik sortutako arreta adiskidetsuari esker.

## **BARKAMENA**

---

Eukaristia ospatzean, egin dezagun isilune bat eta aurkez diezaio gun Jainkoari gure pobrezia eta itxaropena.

- Bizi-ogi oparoa zara zu. *Erruki, jauna.*
- Gozamen- eta poz-bidea zara zu. *Kristo, erruki.*
- Batasun- eta bake-iturri zara zu. *Erruki, jauna.*

Maitasunaren Jainkoak, bere Hitzaren eta eukaristiaren ogiz elikatzen gaituenak, erruki gaitzala, baska ditzala gure bekatuak eta eraman gaitzala betiko bizitzara. Amen.

## **IRAKURGAIAK**

---

### **Oharra**

Gaurko irakurketaren gaia Aliantza da. Aliantzak ogia du hizpide, beti izan baita bedeinkatze-objektu, gauza sakratua. “Lurraren eta gizakiaren lanaren fruitua” da; baina, batez ere, Jainkoaren eskuzabaltasunaren zeinua. Ogi orok du manatik zerbait; lurraren fruitua da, baina zerutik jaitsia. Jesusek ogiak eta arrainak hartu, eta bedeinkatu egin ditu, elikagai horiengatik Jainkoari eskerrak emanez. Zatitu, eta bere maitasunaren indarrez, eskuetan ugaldu zaizkio, inor goseak egon ez dadin.

- **Genesia 14, 18-20:** misterio handiaren erdian, ogi- eta ardo-eskaintza bat, Jesusek sakramentu bidez gurekin geratzeko erabiliko duen eskaintza handia izango da.
- **1 Korintiarak 11, 23-26:** eukaristi afariko kontakizunik antzinakoena irakurriko dugu. Paulok tradizio bat aipatuko digu, jaso eta transmititutako tradizio bat, hasierako kristau-komunitateetan ogia zatitzea ospatzeari buruzkoa.
- **Lukas 9, 11b-17:** ogia zatitzean zera adierazi nahi dugu: eukaristia ez da gertakari bat bere horretan, baizik eta elizaren misio ebanjelizatzailearen oinarri-likagai moduan dago bideratua.

## ***HOMILIARAKO IRADOKIZUNAK***

---

Gure Elizako Santuek pobreekiko elkartasunaren eskakizuna egin zigen Jainkoaren eskaintzaren misterioa ospatzen dugunoi. Karitaterik gabe, ez dago eukaristiarik.

San Ziprianok errita egin zion bere elizbarrutiko kristau-komunitate bati: “Zorionekoa eta aberatsa zara zu. Pentsatzen al duzu zure elkartasunezko ekarpenik gabe Jainkoaren afaria egin daitekeela? Sakrifizioaren zatia ezabatzen duzu, pobrearena den hori”. Tradizioz, diru-bilketaren heren bat komunitateko probeei laguntzeko erabiltzen zen. Horrelaxe esan zuen, zorrotz: “Aberatsek ez badute eukaristiari eramatzen pobreak behar dutena, ez dute Jainkoaren sakrifizioa ospatzen”.

San Joan Krisostomok, bere elizbarrutiko herri batera iristean, jakin zuen bizilagunen arduragabekeriagatik eskale bat hil zela. Gogor ohartarazi zien: “Uko egiten diot eukaristia ospatzeari, harik eta bekatu larri horrengatik penitentzia egiten ez duzuen arte, ez baitzarete inor Jainkoaren afarian parte hartzeko”.

Lercano kardinalak galdera interpelatzaile bat zeukan bere kaperako aldarearen aurre-aurrean: “Zeruko ogia elkarbanatzen badugu, nola ez dugu, bada, lurrekoa elkarbanatuko?”.

Corpus Eguna aukera egokia izan liteke parroquia-komunitate bakoitzean artzainok zein fededunok geure buruari galdezko zer egiten dugun eukaristia “kristau-komunitatearen bizitza osoaren iturri eta gailurra” izan dadin, Kontzilioak dioen bezalaxe.

Bestalde, aurten, Caritaseko kolaboratzaile guztiei, eta, bereziki, gure fede-komunitateetako boluntarioei Elizaren karitatezko jardueraren lan espezifikoari buruzko gogoeta eginarazi nahi diegu, Benedikto XVI.a aita santuak *Deus caritas est* (2005, 31. zk) entziklikan honelaxe zehazten zuena: “sufritzen ari direnei laguntha ematen dietenek ezinbestean izan beharko dute profesionalki gaituak; trebatuta egon

beharko dute, egokiena eta beharrezkoa egiten jakin dezaten, ondoren ere beharrezko arretak emateko konpromisoa euren bizkar hartuz. Gaitasun profesionala da beharrezkoa den lehenengo ezaugarria, baina horrekin bakarrik ez da nahiko... Gizakiez ari gara, eta teknikoki zuzena den arreta baino zerbait gehiago behar dute. Gizatasuna behar dute. Bihotzetiko arreta behar dute. Elizaren karitatezko erakundeetan lan egiten dutenean, nabarmendu behar dute ez soilik une bakoitzean egokiena den hura trebetasunez egitera mugatzen direlako, baizik eta besteari eskaintzen dioten arduragatik, bihotzetik ateratako arreta eskainiz, besteak gizatasun-aberastasun hori jaso dezan. Horregatik, prestakuntza profesionalaz gainera, bihotzaren prestakuntza ere, eta batez ere hori, behar dute. Kristorengan dagoen Jainkoarekin elkartzera bideratu behar ditugu, eragile horiengan maitasuna pizteko eta besteari bere espiritua ireki diezaioten; eta, hala, hurkoarekiko maitasuna ez da, nolabait esatearren, kanpotik inposatutako agindu hutsa izango, baizik eta fedetik eratortzen den ondorio bat, karitatez jarduten duena”.

## ***HERRI OTOITZA***

---

Egun honetan, Kristok bere maitasun betierekoaren eman zizkigun. Egin diezaiogun otoitz errukiaren Aitari.

1. Elizaren alde, errutinan eror ez gaitezen, eta bizitza elkarbanatzeko eta batzuok besteoi laguntzeko eta errukiorrak izateko beharra senti dezagun. *Eska diezaiogun Jaunari.*
2. Langabezian dauden hainbat eta hainbat langileren, euren familien eta krisialdi ekonomikoaren ondorioak jasaten ari diren guztien alde, anaitasunezko maitasunaren egun honetan etorkizun hobe baten itxaropena izan dezaten. *Eska diezaiogun Jaunari.*

3. Caritasen lan egiten duten eta bertako boluntarioak diren guztien alde, sasoi latz hauetan gure babesea eta lankidetza jasotzeari utz ez diezaioten. *Esko diezaiogun Jaunari.*
4. Gure komunitatearen eta mundu osoan eukaristia ospatzen dugun guztion alde, Jesusekin eta geure artean izango dugun egiazko elkartzea izan dadin. *Esko diezaiogun Jaunari.*

Entzun gaitzazu Aita, eta lagun gaitzazu bizitzen, zure seme-alaba gisa eta pertsona guztien senide gisa. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

---

### ***DIRU-BILKETA***

---

Egun honetan bildutako dirua Parrokiako Caritasentzat da, gure inguruko pertsona eta familia behartsuenei laguntzeko.

---

### ***BAKEA***

---

Munduko bekaturik handiena gizakion arteko banaketa eta liskarrak dira. Nahigaberik handiena da premia gorrian bizi direnen drama ahaztea eta horren aurrean axolagabe agertzea. Ez dago bakerik, justiziariak gabe. Ez dago bakerik pertsona guztion giza eskubideak errespetatzen ez badira. Eman bakea elkarri, bizi berri baten egian.